



Europako Batzordearen gomendioak eta gidalerroak ekainaren 30etik aurrera bidaiia-murrizketak apurka-apurka kentzeari buruz

Ekainaren 11n, Europako Batzordeak ibilbide-orri bat ezarri zuen, baita Europar Batasuneko eta Schengengo Estatu Kideentzako orientazioak eta gomendioak ere, 2020ko ekainaren 15a baino lehen Europar Batasunaren barruko muga-kontrolak kentzen hasteko, funtsezkoak ez diren Europar Batasunetik kanporako bidaiien aldi baterako murrizketa 2020ko ekainaren 30era arte luzatzeko eta mugimendu-murrizketak apurka-apurka kentzeko protokolo bat ezartzeko. **Lehentasuna argia da: barne-muga guztiak desagertu behar dira Europar Batasunetik kanpora ireki aurretik.**

Zehazki, batzordeak 3 gai hauek zehaztu eta aurkeztu egin ditu:

- ✓ **Komunikazio bat mugarik gabeko EB baten berreskurapena eta itzulera koordinatzeko, zehazki, honen bidez: “COVID-19aren Informazio-taldea-Barne-gaiak”**
- ✓ **Ibilbide-orri bat/kontuan hartu beharreko alderdien eta gauzen zerrenda ekainaren 11tik aurrera funtsezkoak ez diren bidaiak eta leku-aldatzeak apurka-apurka berrabiarazteko**
- ✓ **Orientazioak bisa behar duten bidaiariek bidaiak apurka-apurka eta modu koordinatuan berrabiarazteko.** Batzordeak orientazioak eman dizkie Estatu Kideei, atzerrian bisen kudeaketa bidaiia-murrizketak apurka-apurka kentzearekin koordinatuta berrabiarazten dela bermatzeko.

Aurrekarietara dagokienez, nabarmendu beharra dago batzordeak estatuburuak edo gobernuburuak gonbidatu zituela joan den 2020ko martxoaren 16an EBrako bidaiia ez-funtsezkoentzako aldi baterako murrizketa bat aplikatzera, hasiera batean, 30 egunetarako, bi aldiz luzatuz hori ekainaren 15era arte. Bidaiia-murrizketa eta horren ekainaren 30era arteko luzapena Schengengo Estatu Kide guztiei (Bulgaria, Kroazia, Txipre eta Errumania barne) eta Schengenera elkartutako 4 estatuei (Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza) aplikatzen zaie; guztira, 30 herrialde dira.

Batzordeko Barne-gaietarako Ylva Johansson kideak hauxe nabarmendu zuen ekainaren 11ko hitzaldian: *“Europar Batasuneko barne-mugetako kontrol guztiak kendu ostean, ikuspegi argia eta malgua proposatzen ari gara uztailaren 1etik aurrera apurka-apurka kentzeko EBrako bidaietarako ezarritako murrizketak. Nazioarteko garraioa eta mugikortasuna funtsezkoak dira turismoarentzat eta negozioentzat, baita familiak eta lagunak berriz konektatzeko ere. Denok arduratsuak izan beharko bagara ere, heldu da ekimen zehatzak sustatzeko unea, EBren antzeko osasun-egoera duten herrialdeekiko murrizketak kentzeko eta bisak koordinatzeko”.*

Hirugarren herrialde batzuetan, oraindik ere, osasun-egoera larria da; horregatik, batzordeak ez du proposatzen etapa honetan bidaiia-murrizketa erabat kentzea. Lehentasuna da barne-muga guztiak desagertu behar direla kanpoko atea ireki aurretik.

EBko Estatuak Europako Batzordearekin batera lan egiten hasiko dira. Muga-kudeaketa nazio-eskumen eskusiboa da; hala eta guztiz ere, Europako Batzordeak EBko Estatu Kideei eskatu die hasierako zerrenda bat adosteko hirugarren herrialdeen kopuru



zehatz batekin. Europako Batzordeak beren beregi eskatu du Mendebaldeko Balkanak gehitzeko estatuen hasierako zerrenda horretan, gero apurka-apurka areagotuko dena. Hala ere, herrialde batzuek bere lehenengo zerrenda ezarri dute hirugarren herrialdeekiko akordioen bidez. Hori da Greziaren kasua; izan ere, iragarri zuen joan den astelehenetik aurrera, ekainak 15, bere mugak irekiko zituela herrialde hauekin: Albania; Australia; Austria; Iparraldeko Mazedonia; Bulgaria; Alemania; Danimarka; Suitza; Estonia; Japonia; Israel; Txina; Kroazia; Txipre; Letonia; Libano; Malta; Montenegro; Hungaria; Errumania; Zeelanda Berria; Norvegia; Serbia; Eslovakia; Eslovenia, Hego Korea; Txekia eta Finlandia. Txiprek, adibidez, Israel gehitu zuen.

Hirugarren herrialdeen hautaketa hiru irizpide hauetan oinarrituta egin beharko litzateke:

- herrialdeek EBren antzeko egoera epidemiologikoa edo hobea izan behar dute, nahiz eta badakiten zaila dela datuak eskuratzea,
- bidaiari zehar euste-neurriak aplikatzeko gaitasuna,
- elkarrekotasun-kontsiderazioak, kontuan hartuz Gaixotasunen Prebentzio eta Kontroleko Europako Zentroa (ECDC) bezalako iturri nabarmenen datuak.

Murrizketa indarrean dagoen herrialdeen kasurako, batzordeak proposatzen du baimendutako bidaiariaren kategoriak handitzea, adibidez, nazioarteko ikasleak eta ikertzaileak gehitzeko.

▪ **EBra bidaiatzeko murrizketak apurka-apurka kentzea:**

EBren kanpoko mugak berriz irekitzeko prozesua koordinatu beharko da eta irizpide komunekin egin beharko da, eraginkorragoa izan dadin. Kontuan hartuta EBra sartzen diren bidaiariak herrialde batetik bestera askatasunez joan daitezkeela, funtsezkoa da Estatu Kideek bidaiari-murrizketak kentzeari buruzko erabakiak koordinatzea ("COVID-19aren Informazio-taldea-Barne-gaiak"). Hortaz, EBko estatuak uztailaren 1etik aurrera bidaiari-murrizketak kendu ahal zaizkien EBkoak ez diren herrialdeen zerrenda komun bat adostu beharko lukete, aldizka berrikusiko dena.

Helburu horretarako, batzordeak hauxe proposatzen du:

- ✓ **Irizpide objektiboak:** herrialde zehatz batentzat murrizketak kentzeko erabakia herrialde horren egoera epidemiologikoan eta koronabirusari emandako erantzunean oinarritu beharko da. Horrez gain, kontuan hartu beharko da bidaiari zehar euste-neurriak aplikatzeko gaitasuna dagoen eta herrialde horrek EBrako bidaiari-murrizketak kendu dituen edo ez. Lehenik eta behin, murrizketak kenduko dira EBko batez besteko egoera epidemiologikoaren antzeko egoera duten herrialdeekin, baldin eta, horrez gain, birusari aurre egiteko gaitasun nahikoak badituzte. Murrizketak mantendu beharko lirateke EBkoa baino egoera okerragoa duten herrialdeentzat. Batzordeak EBko Estatuari egokitasuna irizpide berekin ebaluatzen laguntzeko kontu garrantzitsuenen zerrenda xehe bat proposatzen du. Bidaiari-murrizketak kentzeari buruzko erabakiek berariazko herrialde batean bizi diren EBkoak ez diren nazionaleri eragingo liekete (ez bere nazionaleri).
- ✓ **Ikuspegi komun eta koordinatua:** batzordeak koordinazio-mekanismo bat proposatzen du; horren bidez, teknikoki, Estatu Kideak eta Schengengo estatu elkartuak babestuko lituzke eta bidaiari-murrizketak kendu ahal zaizkien herrialdeen zerrenda bat prestatzea erraztuko luke. Murrizketak kentzeari buruzko erabakiak Estatu Kideekin batera prestatu beharko lirateke, EBren krisi politikoari erantzuteko



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de Acción Exterior

mekanismo bateratuaren esparruan.

Estatu Kideek modu koordinatuan hartu behar dituzte erabaki horiek eta EB osoan aplikazio bateratuta bermatu behar dute. Prozesu dinamikoa izango da eta koordinazioa berebizikoa da.

- ✓ **Malgutasuna:** herrialde zehatz batek irizpideak betetzeari uzten badio, berriz ere ezarri ahalko dira bidaia-murrizketak. Gainera, EBko estatuak EBkoa ez den bidaiari baten sarrera uka dezakete oraindik ere bertako osasun publikoarentzako mehatxua dela jotzen bada, baita murrizketak kendu zaizkion herrialde batetik badator ere.

Proposatutako egiaztapen-zerrendarekin bat etorriz, batzordeak gomendatzen du, uztailaren 1etik aurrera, herrialde hauentzako bidaia-murrizketak kentzea, bertako egoera epidemiologikoa EBkoaren antzekoa edo hobea delako: Albania; Bosnia-Herzegovina; Kosovo; Iparraldeko Mazedonia eta Serbia. Hori lotuta dago batzordearen Mendebaldeko Balkanen eskualdea hertsiki lotzeko xedapenarekin, hain zuzen ere, euste-neurriak kentzeko ibilbide-orriaren ezarpenarekin.

Bidaia-murrizketek indarrean jarraitzen badute, EBko estatuak ziurtatu beharko dute EBkoak ez diren eta prestakuntza/hezkuntza arazoengatik bidaiatzen dutenak edo trebakuntza altuko langileak izateagatik bidaiatzen dutenak (bidaia atzeratu ezin badute edo atzerriko lana egin behar badute) neurri horiek betetzeaz salbuetsita daudela. Horiez gain, EBko herritarrak, Schengengo estatu elkartuetako herritarrak eta EBkoak ez izan arren Europar Batasunean legezko bizitokia duten herritarrak eta horien senideak bidaia-murrizketa betetzeaz salbuetsita egon behar dira, bere etxeetara itzultzen ari diren edo ez gorabehera, orain arte bezala.

- **Ibilbide-orri bat ekainaren 11tik aurrera funtsezkoak ez diren bidaiak eta leku-aldatzeak apurka-apurka berrabiarazteko**

Euste-neurriak kentzeari buruzko ibilbide-orria apirilaren 15ean aurkeztu zen; horretan, batzordeak adierazi zuen EBren barruko barne-murrizketak apurka-apurka kendu beharko lirakekeela, bigarren etapa batean, kanpo-mugetako murrizketak kendu aurretik. Hori abian da dagoeneko; izan ere, Estatu Kide batzuek jada kendu dituzte EBren barruko murrizketak eta beste batzuek hori egingo dute 2020ko ekainaren 15etik aurrera. Batzordeak irmoki animatzen ditu gainerako Estatu Kideak zirkulazio askearen murrizketak kentzeko prozesua amaitzera eta EBren barruko mugetako kontrolak kentzera 2020ko ekainaren 15a baino lehen.

- **Bisa lortzeko operazioak berrabiaraztea**

Estatu Kide gehienek bisa-eskaeren prozesamendua bertan behera uztea edo murriztea erabaki zuten pandemiarekin lotutako neurrien parte gisa. Bidaiariek aukera izan beharko dute bisa eskatzeko zerbitzuetara berriz ere jotzeko eta Estatu Kideek eskaera horiek berriz kudeatzeko prozesua sinkronizatu beharko dute bidaia-murrizketak kentzeko prozesuarekin. Horregatik, batzordeak gida bat aurkeztu du, kontsul-zerbitzu desberdinen bidez, bisa-eskaerak apurka-apurka eta modu koordinatuan kudeatzen hasteko.

Azkenik, Estatu Kide batek osasun-kontrolak behar baditu, horiek bidaiatzerakoan edo bisa eskatu baino apur bat lehenago egin beharko dira eta leku zehatz bateko bidaiari guztiei aplikatu beharko zaie neurria, horien nazionalitatea edo bere bisaren egoera gorabehera.

**LEHENDAKARITZA**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de Acción Exterior

105 herrialdetako herritarrek bisa lortu behar dute EBra bidaiatu aurretik. Orokorrean, bisa-eskaerak Estatu Kideetako kontsuletxeetan aurkez daitezke EBkoak ez diren mundu osoko ia-ia herrialde guztietan. EBren egonaldi laburretarako bisa-politika osorik aplikatzen da Schengengo 26 Estatu Kidetan eta, garai normaletan, urtean, 15 milioi bisa igortzen dira.